PRENTSA-OHARRA

Bilbo Zientzia Plaza 2026k 5 974 pertsona bildu ditu eta 20 478 bistaratze baino gehiago ditu plataforma digitaletan

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako jaialdiaren bederatzigarren edizioak 5 974 bildu ditu aurrez aurre, eta bere edukiek 20 478 bistaratze baino gehiago izan dituzte plataforma digitaletan.

2 694 lagun inguru bertaratu ziren irailaren 18tik 20ra Naukas Bilbao berrituaren barruan programatutako jarduetara, eta 510 lagun BZP Tailerrak ekimenaren estreinaldira, haurrei eta familiei zuzendutako proposamen berrira.

Gainera, 1 600 pertsonak baino gehiagok bisitatu dute "Intsektuak. Kontatzen duten guztia" erakusketa, intsektuen mundu liluragarria esploratzeko aukera eskaintzen duen erakusketa inklusibo eta irisgarria.

Bilbon, 2026ko urriaren 4an. Bilbo Zientzia Plaza (BZP) zientzia-dibulgazioko jaialdiak gaur goizean amaitu du bederatzigarren edizioa, eta horrekin batera, Bilbon zientzia-dibulgazioz betetako hiru asteko egitarauari amaiera eman dio. Irailaren 16tik, BZPk **5 974** pertsona bildu ditu hiriko hainbat gunetan, eta bere zabalkundea handitu du hitzaldien zuzeneko emanaldien eta gero plataforma digitaletan argitaratutako bideoen bidez.

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako ekimenak hogeita bi zientzia-hitzaldi, konferentzia bat, sei tailer, hiru ikuskizun, zientzia-lehiaketa bat, intsektuei buruzko erakusketa bat eta dokuforum bat eskaini ditu. Edizio honetan, jarduerak bost gunetan egin dira: Euskalduna Bilbaon, Bidebarrietako Liburutegian, Bizkaia Aretoa-EHUn, Arte Ederren Museoaren inguruetan eta EDE Fundazioaren Guruzu Plaza gunean.

Naukas Bilbaoren berritzea

5 974 lagun inguruk hartu dute parte aurrez aurre Bilbo Zientzia Plazaren barruan antolatutako jardueretan. Jende gehien bildu duten proposamenen artean Euskalduna Bilbaon egindako bi ekimen daude: **Naukas Gazte**, irailaren 18an, ostiral goizean, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendua; eta **Naukas Bilbao Hastapenak**, irailaren 19an, larunbatean, goizez eta arratsaldez.

Hamaseigarren edizioan, Naukas dibulgazio-zientifikoko plataformak eta EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako Naukas Bilbaok formatu berritua estreinatu zuen, hastapenak ardatz hartuta: Big Bangetik bizitaren hasierara, hizkuntzaren jatorritik igarota eta zientziaren mugetara iritsi arte. Bi jarduerek, guztira, **2 694** pertsona bildu zituzten Euskalduna Bilbaoko Auditoriumean.

Gainera, **848** umek, euren familiekin batera, parte hartu zuten irailaren 20an, igandean, **Naukas Kids**en barruan programatutako hiru ikuskizunetan. Ikuskizunak Euskalduna Bilbaon, Bizkaia Aretoa-EHUn eta Arte Ederren Museoaren inguruetan egin ziren.

Edizio honetako beste berrikuntzetako bat **BZP Tailerrak** martxan jartzea izan da. Ekimen horrek haurrei eta familiei zuzendutako programazioa zabaldu du. Guztira, **510** lagunek hartu dute parte Bizkaia Aretoa-EHUn eta EDE Fundazioaren Guruzu Plazan egindako tailer, ikuskizun eta zientzia-lehiaketetan.

Saio bikoitza Bidebarrieta Zientifikoan

BZPren programazioa irailaren 16an, asteazkenean, abiatu zen **Bidebarrieta Zientifikoa**ren saio batekin. EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bidebarrieta Kulturguneak antolatutako zikloak, gainera, ikasturte berria saio bikoitz batekin inauguratu zuen, irailaren 16an eta 30ean.

Guztira, **322** pertsona hurbildu ziren Bidebarrietako Liburutegira **"Natura Bizia (2021)"** dokumentalaren emanaldira eta ondorengo solasaldira, baita Aranzadi Zientzia Elkarteko Entomologia Saileko ikertzailea **Beatriz Díaz** biologoaren hitzaldiara ere.

1 600 ikusle baino gehiago intsektuei buruzko erakusketan

“Intsektuak. Kontatzen duten guztia” erakusketa, irailaren 19tik gaur goizera arte Bizkaia Aretoa-EHUn ikusgai egon dena, edizio honetako jarduerarik bisitatuenetako bat izan da. **1 600** pertsonak baino gehiagok bisitatu dute EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Nafarroako Unibertsitateko Zientziak Museoak antolatutako erakusketa, intsektuen aniztasun harrigarria ezagutzera ematen duena.

BZPren bederatzigarren edizioa gaur goizean amaitu da Bizkaia Aretoa-EHUn egindako BZP Tailerraken azken saioarekin. Jardunaldiak ginkana geologiko bat eta auzitegi-medikuen lana gertutik ezagutzeko tailer izan ditu. Horrez gain, parte-hartzaileek hainbat artropodo gertutik ikusi eta ukitzeko aukera izan dute, besteak beste, Herkules kakalardo bat, tximeleta bat eta tarantula bat.

20 478 bistaratze baino gehiago formatu digitalean

Aurreko edizioetan bezala, programatutako hainbat jarduera *streaming* bidez eman dira eta plataforma digitaletan argitaratu dira. Guztira, kanal horietan eskuragarri dauden hitzaldiek **20 478** bistaratze baino gehiago izan dituzte, zuzenean zein gerora.

Zientzia-dibulgazio jaialdiak irailean zientzia ekarri du berriro Bilboko hainbat gunetara, haurrei eta familiei, gazteei, hezkuntza- eta unibertsitate-komunitateko kideei eta zientzia eta kulturako edukiekiko interes berezia duten pertsonei zuzendutako programa zabal bati esker.

Halaber, lehen aldiz, programatutako proposamenetako batzuek, hala nola **“Intsektuek. Kontatzen duten guztia”** erakusketak edo **“Universo accesible”** (Unibertso eskuragarria) ikuskizunak, irisgarritasuna hobetzeko berariazko baliabideak txertatu dituzte. Baliabide horiek ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonen, mugikortasun murriztua dutenen eta autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duten pertsonen parte-hartzea erraztea dute helburu.

Bederatzi edizioren ondoren, Bilbo Zientzia Plaza Bilboko zientzia-dibulgazioko egutegian hitzordu nabarmen bihurtu da, eta etengabe eboluzionatzen eta egokitzen jarraitzen du,

ezagutza zientifikoa gero eta publiko anitzagoengana hurbiltzeko. Dagoeneko 2027ko irailean egingo den hamargarren urteurrenari begira dago.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako zientzia-dibulgazioko ekimena da, Euskampus Fundazioaren laguntzarekin eta Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila, Donostia International Physics Center (DIPC), EITB eta Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoa erakundeen babesarekin.

NOTA DE PRENSA

Bilbo Zientzia Plaza 2026 reúne a 5 974 personas y supera las 20 478 visualizaciones en plataformas digitales

La novena edición del festival, organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, ha reunido a 5 974 personas de manera presencial y ha superado las 20 478 visualizaciones de sus contenidos en plataformas digitales

Alrededor de 2 694 personas se acercaron a las actividades programadas del 18 al 20 de septiembre dentro del renovado Naukas Bilbao y 510 han participado en el estreno de BZP Tailerrak, nueva iniciativa dirigida al público infantil y familiar

Además, más de 1 600 personas han visitado la exposición "Insectos. Todo lo que cuentan", una muestra inclusiva y accesible para explorar el fascinante mundo de los insectos

Bilbao, 4 de octubre de 2026. El festival de divulgación científica Bilbo Zientzia Plaza (BZP) ha finalizado esta mañana su novena edición y, con ella, cierra tres semanas de divulgación científica en Bilbao. Desde el 16 de septiembre, BZP ha reunido a **5 974** personas en diferentes espacios de la villa y ha ampliado su alcance a través de las retransmisiones en directo de charlas y conferencias y de los vídeos publicados después en plataformas digitales.

La iniciativa, organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, ha ofrecido un programa compuesto por veintidós charlas científicas, seis talleres, cuatro espectáculos, una conferencia, un concurso científico, una exposición sobre insectos y un docufórum. A lo largo de esta edición, las actividades se han desarrollado en cinco escenarios: Euskalduna Bilbao, Biblioteca de Bidebarrieta, Bizkaia Aretoa-EHU, los alrededores del Museo de Bellas Artes y el espacio Guruzu Plaza de la Fundación EDE.

La renovación de Naukas Bilbao

Alrededor de **5 974** personas han asistido de manera presencial a las actividades organizadas en el marco de Bilbo Zientzia Plaza. Entre las propuestas que han concentrado una mayor asistencia se encuentran las celebradas en Euskalduna Bilbao: **Naukas Gazte**, el viernes 18 por la mañana, dirigido a estudiantes de secundaria, bachillerato y formación profesional; y **Naukas Bilbao Inicios**, celebrado el sábado 19 en sesión de mañana y tarde.

En su decimosexta edición, Naukas Bilbao, organizado por la plataforma Naukas y la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, estrenó un formato renovado, con los inicios como gran hilo conductor: desde el Big Bang hasta el comienzo de la vida, pasando por el origen del lenguaje y terminando en los límites de la ciencia. Ambas actividades reunieron a un total de **2 694** personas en el Auditorium de Euskalduna Bilbao.

Además, **848** niños y niñas, junto con sus familiares, participaron el domingo 20 en los tres espectáculos programados dentro de **Naukas Kids**, celebrados en Euskalduna Bilbao, Bizkaia Aretoa-EHU y los alrededores del Museo de Bellas Artes.

Otra de las novedades de esta edición ha sido la puesta en marcha de **BZP Tailerrak**, una iniciativa que ha ampliado la programación dirigida al público infantil y familiar. Un total de **510 personas** han participado en los talleres, espectáculos y concursos científicos celebrados en Bizkaia Aretoa-EHU y en Guruzu Plaza de la Fundación EDE.

Doble sesión en Bidebarrieta Científica

La programación de BZP se abrió el pasado miércoles 16 de septiembre con una cita en **Bidebarrieta Científica**, ciclo organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y Bidebarrieta Kulturgunea, que además inauguró su nuevo curso académico con una sesión doble los días 16 y 30 de septiembre.

Un total de **322** personas se acercaron a la Biblioteca de Bidebarrieta para disfrutar de la proyección del **documental "Natura Bizia"** (2021), y del coloquio posterior, así como de la conferencia de la bióloga **Beatriz Díaz**, investigadora del departamento de entomología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Más de 1 600 visitas a la exposición sobre insectos

La exposición "Insectos. Todo lo que cuentan", abierta desde el 19 de septiembre hasta esta misma mañana en Bizkaia Aretoa-EHU, ha sido una de las actividades más visitadas de esta edición. Más de **1 600 personas** han recorrido la muestra, organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y el Museo de Ciencias Universidad de Navarra, que explora la extraordinaria diversidad de los insectos.

La novena edición de BZP ha concluido esta mañana con una última sesión de **BZP Tailerrak** en Bizkaia Aretoa-EHU. La jornada ha incluido una yincana geológica, un taller para acercarse al trabajo de los médicos forenses y una actividad en la que los y las asistentes han podido observar de cerca y tocar un escarabajo hércules, una mariposa e incluso una tarántula, entre otros artrópodos.

Más de 20 478 visualizaciones en formato digital

Al igual que en ediciones anteriores, varias actividades programadas han sido retransmitidas por *streaming* y alojadas en diferentes plataformas digitales. En conjunto, las conferencias y charlas científicas disponibles en estos canales han superado las **20 478 visualizaciones**, tanto en directo como en diferido.

El festival de divulgación científica ha vuelvo a llenar Bilbao de ciencia en septiembre gracias a una programación completa en la que se contemplan actividades para público infantil y familiar, juvenil y personas de la comunidad educativa y académica, así como personas con especial interés en contenidos de ciencia y cultura.

Asimismo, por primera vez, algunas de las propuestas programadas, como la **exposición "Insectos. Todo lo que cuentan"** o el **espectáculo "Universo accesible",** han incorporado recursos específicos para mejorar la accesibilidad. Estos recursos tienen como objetivo facilitar la participación de personas con discapacidad visual o discapacidad auditiva, con movilidad reducida o con trastorno del espectro autista (TEA).

Tras nueve ediciones, Bilbo Zientzia Plaza se ha convertido en una cita destacada en el calendario de divulgación científica de Bilbao y continúa evolucionando y adaptándose para acercar el conocimiento científico a públicos cada vez más diversos, con la mirada puesta ya en su décimo aniversario, que tendrá lugar en septiembre de 2027.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) es una iniciativa de divulgación científica organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, con la colaboración de Euskampus Fundazioa y el patrocinio del Ayuntamiento de Bilbao, el Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco, Donostia International Physics Center (DIPC), EITB y el Museo de Ciencias Universidad de Navarra.